

IZENA: _____ DATA: _____

UR AZPIKO ALTXORRAK

Arnas hartzeko tutua eta betaurrekoak hartuta uretan murgiltzen bazara, hondarra, arroak eta hainbat izaki bizidun ikusiko dituzu: arraintxoak, izkirak, algak, olagarroak... Baina oxigeno bonbonak soinean hartuta ur sakonagoetan murgilduz gero, beste mota bateko altxorak aurkituko dituzu: lingoteak, anforak, burdin harria... Altxorretan altxorrena, ordea, aspaldiko ontzi bat aurkitzea da! Istripu baten ondorioz hondoratutako ontziak izan ohi dira. Agian gidariaren maniobra txar baten ondorioz hondoratu ziren, edo ekaitz batek bultzatuta arroken kontra egin zuten... Harrezkero, uraren azpianegon dira, arrain, hondar eta alga artean.

Denbora igaro ahala, itxura aldatu egiten zaie ontzi horiei: lehen ontzihandiak eta ederrak zirenak erabat deseginda egon daitezke ur azpian. Itsasoak hondatu egiten du egurra: uraren indarrak txikitu egiten duelako, animaliek jan egiten dutelako... Horregatik, ez da erraza izaten ontzi bat osorik aurkitzea; haren arrastoak baino ez dira egoten ur azpian, eta ez dute, jada, ontzi baten itxura handirik izaten.

Ikertzaileak bonbona handiekin sartzen dira ur azpira. Arkatz eta paper bereziak eramaten dituzte, ikusten duten guztia marrazteko. Aurkitutako gauza guztiei etiketatxo bana jartzen diete. Aurkitutakoaren arabera jakin dezakete zein garaitakoa zen ontzia. Bilaketa amaitzen dutenean, aurkitutakoa uretatik ateratzen dute, eta, gehienetan, museo batera eramaten dute.

Arantxa TXINTXURRETA(2009/04/28)

www.zernola.net (egokitua)

1. Zer da beharrezkoa ur sakonetan murgiltzeko?

- A.Betaurreko onak.
- B.Bainujantzi handia.
- C.Arnas hartzeko tutua.
- D.Oxigeno bonbonak.

2. Zer aurki daiteke ur azpian?

- A.Arrainentzako janaria.
- B.Lingoteak, anforak eta abar.
- C.Hondarretan ezkutatutako olagarroak.
- D.Oxigeno bonbonak.

3. Zein da ur azpian aurki daitekeen altxorrik preziatuena?

- A.Piraten altxorra.
- B.Aspaldian hondoratutako ontzi bat.
- C.Itsasoan hondatutako egurra.
- D.Arrainak eta algak.

4. Ikertzaileek zertarako erabiltzen dituzte arkatz eta paper bereziak?

- A.Altxorrei etiketa jartzeko.
- B.Altxorretan marrazkiak egiteko.
- C.Ezertarako ere ez.
- D.Museoetako ontziei izenak ipintzeko.

5. Non irakur daiteke testu hau?

- A.Literatura lan batean.
- B.Entziklopedia batean.
- C.Egunkari bateko albisteen atalean.
- D.Aldizkari batean.

6. Zein da testuaren gaia?

- A.Itsasoko arrainen ezaugarriak.
- B.Itsasoko altxorrak.
- C.Altxorrak.
- D.Piraten garaiko altxorrak.

EGIA ALA FALTSUA?

- 0. Ur azpian bizidun asko aurki daitezke arraintxoak, izkirak...:
- 1. Ur azpian dauden ontzi batzuk arroken kontra jo ondoren hondoratu ziren.
- 2. Urak bakarrik hondatzen du hondoratutako ontzien egurra.
- 3. Denbora igaro ahala, urperatutako ontziei ez zaie itxura asko aldatzen.
- 4. Aurkitutako itsasontziaren zatiak museora eramaten dituzte beti.